

ADIERAZPEN INSTITUZIONALA DECLARACIÓN INSTITUCIONAL



ADIERAZPEN INSTITUZIONALA, EKAINAREN 28AN LGTBI HARROTASUNAREN NAZIOARTEKO EGUNA DELA ETA

52urte igaro dira lesbiana, gay, transexual, bisexual eta intersexualak poliziarengandik jasaten zuten jazarpen eta xantaia jarraituen aurka borrokatu zirenetik Stonewall-en; gertaera hark mugarri bat ezarri zuen LGTBI pertsonen borrokan. Harrezkero, munduko leku askotan, LGTBI Harrotasunaren Nazioarteko Eguna ospatzen da: aniztasun soziala eta, bereziki, aniztasun afektibo-sexuala aldarrikatzeko eguna da, pertsona guztien eskubideak gizarte osoari gogorarazteko helburuarekin.

2020ko martxotik, COVID-19aren pandemia hasi zenetik, aparteko une historikoak bizi ditugu. Badirudi poliki-poliki egoera horretatik ateratzen ari garela, baina hori ezin da aitzakia izan kolektibo guztien eskubideak ez gogoratzeko, bereziki, kalteberenak direnenak.

Urtebete baino gehiago igaro da pandemiak gure bizitzak gogor astindu zituenetik. Informazio eta datu askoren arabera badakigu jada konfinamenduak LGTBI pertsonen aurkako diskriminazio-maila handiagoak ekarri dituela; haien eskubideak bermatu beharrean. urratuak izan dira,

DECLARACIÓN INSTITUCIONAL CON MOTIVO DEL DÍA 28 DE JUNIO, DÍA INTERNACIONAL DEL ORGULLO LGTBI

Han pasado 52 años desde que en Stonewall lesbianas, gays, transexuales, bisexuales e intersexuales, se rebelaron frente al acoso y chantaje continuos que recibían por parte de la policía: este hecho marcó un antes y un después en la lucha de las personas LGTBI. Desde entonces, en muchas partes del mundo, se celebra el Día Internacional del orgullo LGTBI: es un día para reivindicar la diversidad social y, en particular, la diversidad afectivo-sexual, con el objetivo de recordar los derechos de todas las personas al conjunto de la sociedad.

Desde marzo del 2020, cuando comenzó la pandemia de la COVID-19 estamos viviendo momentos históricos excepcionales. Parece que vamos saliendo de ella poco a poco, pero esto no debería ser excusa para no recordar los derechos de todos los colectivos, especialmente los más vulnerables.

Ha transcurrido más de un año desde que la pandemia sacudió fuertemente nuestras vidas. Sobre la base de abundantes datos e información, sabemos que el confinamiento ha traído mayores niveles de discriminación contra personas LGTBI; sus derechos en lugar de ser garantizados

ADIERAZPEN INSTITUZIONALA DECLARACIÓN INSTITUCIONAL



zaugarritasun bereziko testuinguru batean.

Ekainaren 6an, taldeko eraso homofobo izugarri bat jasan zuen Basauriko bizilagun batek. Gizartea kalera atera zen, baina beharrezkotzat jotzen dugu LGTBI kolektiboaren eta kolektibo kalteberenen eskubideen bermean sakontzen jarraitzea.

Horregatik, ekainaren 28 honetan, berriz ere aitortu nahi dugu hainbeste LGTBI kolektibok eta pertsonak Euskal Herrian egin duten borroka luze eta ordainezina, eta Gipuzkoako Batzar Nagusi hauek kolektibo horren eskubideekin duten konpromiso politikoa berretsi nahi dugu, baita urteko egun guztietan ere.

Adierazpenetatik haratago, gure konpromisoa politika zehatzetan islatu behar da, dagozkien giza baliabideekin eta baliabide tekniko eta ekonomikoekin, eta mugimendu feministaren eta LGTBI mugimenduaren ordezkari eta adituekin lankidetzan.

Batzar Nagusiek konpromiso hauek hartzen dituzte:

- LGTBI pertsona guztien berdintasun erabateko eta eraginkorraren alde lanean jarraitzea, barneko, Europako eta nazioarteko ordenamendu juridikoaren arabera.
- Aldarrikatzen dute LGTBI pertsonak nazioartean aitortutako eskubide guztien

han sido violados en un contexto de especial vulnerabilidad.

El día 6 de junio sucedió una brutal agresión grupal homófoba a un vecino de Basauri. La sociedad salió a la calle, pero consideramos necesario seguir profundizando en la garantía de los derechos del colectivo LGTBI, junto con la de todos los colectivos más vulnerables.

Por ello, este 28 de junio volvemos a insistir en reconocer la larga inestimable lucha de tantos colectivos y personas LGTBI en Euskal Herria y queremos reiterar el compromiso político de estas Juntas Generales de Gipuzkoa con los derechos de este colectivo, también todos los días del año.

Más allá de las declaraciones, nuestro compromiso debe reflejarse en políticas concretas, con sus respectivos recursos humanos, técnicos y económicos: en colaboración con representantes y expertas de los movimientos feminista y LGTBI.

Las juntas Generales se comprometen a:

- Continuar trabajando por la igualdad plena y efectiva de todas las personas LGTBI, de conformidad con el ordenamiento jurídico interno, europeo e internacional.
- Proclaman que las personas LGTBI son titulares de todos los derechos

ADIERAZPEN INSTITUZIONALA DECLARACIÓN INSTITUCIONAL



titularrak direla, eta ezin dutela inolako diskriminaziorik jasan.

reconocidos a nivel internacional sin que puedan ser objeto de discriminación alguna.

- Konpromisoa hartzen dute, tratu-berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioa bermatzeko eginkizunean, LGTBI pertsonak diskriminatzeko moduei buruzko ezagutza eskuratzea erraztuko duten eta tratu-berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipio hori lortzen lagunduko duten beharrezko neurri eta tresna guztiak bultzatzeko.
- Diskriminazioaren aurka babesteko LGTBI araudi integral bat bultzatzeko konpromisoa hartzen dute, beren eskumenen esparruan, gaur egun indarrean dagoen araudia osatzeko.
- Irmoki gaitzesten dituzte jatorria sexu-orientazioan eta genero-identitatean duten indarkeria-mota guztiak, agerikoak zein ikusezinak, bai eta gorroto-delituak, diskriminazioa, intolerantzia, umiliazioa eta gainerako indarkeria nabarmen edo sotilak ere.
- LGTBI mugimenduak hartutako konpromisoa eta egindako lana aitortzen dute, LGTBI kolektiboaren giza eskubideak aitortzeko egindako aurrerapenen funtsezko zati gisa.
- Herritar guztiei dei egiten diete
- Se comprometen desde su papel de garante del principio de igualdad de trato y no discriminación, a impulsar todas aquellas medidas e instrumentos necesarios, que faciliten la adquisición de conocimientos sobre las distintas formas de discriminación hacia las personas LGTBI, que sirvan para ayudar a la consecución de ese principio de igualdad de trato y no discriminación
- Se comprometen a impulsar desde su ámbito competencial, una normativa LGTBI Integral de protección contra la discriminación, que complete la normativa vigente actual.
- Condenan enérgicamente todas las formas de violencia tanto visibles como invisibles, así como los delitos de odio, la discriminación, la intolerancia, la humillación y demás violencias evidentes o sutiles que tengan su origen en la orientación sexual y la identidad de género.
- Reconocen el compromiso y el trabajo realizado por el movimiento LGTBI como parte fundamental en los avances alcanzados para el reconocimiento de los Derechos Humanos del colectivo LGTBI.
- Hacen un llamamiento a toda la

ADIERAZPEN INSTITUZIONALA DECLARACIÓN INSTITUCIONAL



diskriminazio-modu guztiak baztertzeraz,
eta LGBTI mugimenduak gure herri eta
hirietan deitutako ekintza guztietan parte
hartzeraz animatzen dituzte.

población a rechazar todas las formas
de discriminación, y animan a participar
en todas las acciones convocadas por el
movimiento LGBTI en nuestros pueblos
y ciudades.